



## LGTB kolektiboa aintzat hartzen duten ekitaldiak eskualdean

Urnietan zikloa eskaintzen ari dira, eta Andoainen dokumentala eta solasaldia.

Ekainaren 28an lesbiana, gay, transexual eta bisexualen nazioarteko eguna ospatzen da eta aurtengoan sentsibilizazio jardunaldi ezberdinak antolatu dituzte Andoainen eta Urnietan. Urnietan aste honetan mural baten margoketa egin dute Plazido Muxika plazan, sexu orientazioarekiko errespetua eskatuz. Muxu Gozo elkarteak, bestalde, aniztasun



Murala margotu zuten astearte arratsaldean, Plazido Muxika plazan.

sexualari buruzko tailerra antolatu zuen. Datozen egunetarako zinema emanaldia eta hitzaldia antolatu dituzte.

Andoainen "Mi reflejo" haur, nerabe eta gazteen transexualitatea lantzen duen dokumentala eskainiko dute Basteron, datorren ekainaren 27an. Ondoren, solasaldia egingo dute. Hizlari Gehitu elkarteke Aintzane Muguruza eta Chrysallis elkarteke Asier Mariezkurrena arituko dira.

Egun handiagoa da gizartearen errealitate honekiko sentsibilizazioa, eta geroz eta ekitaldi gehiago antolatzen da.

[AGENDA, 8. ORRIALDEA]

## Egape dantza taldea



Ikuskizun paregabea, joan zen larunbat gauekoa. Dantza eta margoa uztartu zituzten gainera, **Jon Jauregi** artistak taula gainean bertan amaitu baitzuen okasiorako egindako artelana.

[URNIETA, 3. ORRIALDEA]

## Osasunaren aldeko sinadurak



"Erraustegiaren aurka, eta osasunaren alde gaudela adierazi nahi diegu Urnietako zinegotziei eta alkate jaunari". Hitz horiek Urnietako Bizirik plataformako kideek Bertan Udal zerbitzuan 1144 urnietarren sinadurak aurkeztu zituzten, astearte eguerdian.

[AZKENA, 8. ORRIALDEA]

## Andoain eta andoaindarrak San Juan jaietan murgilduko dira

Ostiralean hasi eta datorren astelehenera bitarte, ekitaldi ugari Andoainen.

Ostiral arratsaldean hasita, haur eta gurasoak jaietako murala egitera gonbidatuta daude. Eta hortik abiatuta Andoain herria jaietan murgilduko da. Tradizio handiko ekitaldiak eta musika nahiz kirol

jarduerak uztartuko dira lau egunetan zehar. Larunbata izango da egun indartsuena, besteak beste, Axeri dantzarekin, herri bazkariarekin eta Gatiburen kontzertuarekin.

Astelehena haurren eguna izango da: Haur parkea, haur danborrada, dantza saioa... Azken urteetan bezalaxe, jaiak pirotekniazko kalejirarekin amaituko dira.

[GEHIGARRI BEREZIA]



Udal arduradunek eta herri eragileek taldeko argazkia atera zuten astelehenean.



**EKAINAK 27**  
**ASTEARTEA**  
19.00 · BASTERO

**DOKUMENTALA**  
*Mi Reflejo*  
Haur, nerabe eta gazte transexualek egunero bizi duten errealitateari buruzko lana. Haien egoera azaldu eta euren aldarrikapenak agerian uzten dituzten historia pertsonalak.

**SOLASALDIA**  
**SEXU ANIZTASUNA**  
Bizipenak, gatazkak eta babesak.  
Aintzane Muguruza Mendarte (Gehitu)  
Asier Mariezkurrena (Chrysallis EH)

**LGTBren Harrotasunaren Aldeko Nazioarteko Eguna**



ANDOINGO UDALA  
EMAKUME ETA GIZONEN  
BERDINTASUN  
LAN SAILA

## Ikasturte amaierako jaia Egape ikastolan



Ikasturte amaierako jaialdian omenaldia jaso zuten erretiroa hartuko duten Loinaz Gereñu, Ana Maraion eta Manu Marias irakasleek.

Joan zen larunbatean Egape Ikastolak ikasturte bukaerako jaialdia ospatu zuen. Lehenago, astean zehar laburmetraien lehiaketaren sari banaketa edota kontzertu arrakastatsua antolatu zituzten elizan. Larunbatean bertan Egape dantza taldeak parte hartu zuen, egoera ho-

rrerarako prestatutako dantza berezi batekin. Ezin aipatu gabe utzi aurten jubilatuko diren hiru irakasleek jasotako omenaldia.

Hiruen izenean DBHko zuzendari Manu Mariasek, ikasleek eta gurasoek izandako adeitasuna eskertu zuen.



Ikasleek dantza saio ezberdinak eskaini zituzten.

## LGTB gogoan antolaturiko jarduerak Urnietan



Plazido Muxika plazan margotzen hasi ziren, astearte arratsaldean.

LGTB kolektiboaren Nazioarteko egunaren atarian, Plazido Muxika plazako harmailetan ostadarra margotzen aritu ziren astearte arratsaldean. Muralaren diseinua Arantzazu Iturbek egin du. Egilearen esanetan artelanak xede argia du: "Pertsona guztiak errespetatu ditugun, edozein delarik ere beren sexu orientazioa".

### DATORREN ASTERAKO HITZORDUAK

**Ekainak 28, asteazkena:** Laburmetraien emanaldia. 18:00. Sarobe.

**Ekainak 29, osteguna:** "Transexualitatea lehen pertsonan, sexualitatearen ikuspuntutik". Hitzaldia Chrysallis elkarte-ko adituaren eskutik. 18:30. Lekaio.

San Juan plazan kalejira hasi eta sua Plazido Muxika plazan

## San Juan sua eta Akelarrea, ostiral gauean



Akelarrea Plazido Muxikan, San Juan plazan abiatutako kalejirari jarraipena emanez. Gau ikusgarria izaten da Urnietakoa.

Azken urteetako tradizioari eutsi eta urnietarrek San Juan bezperako suarekin batera Akelarrea ospatuko dute Plazido Muxika plazan. Gaueko 21:00etan hasiko da ospakizu-

na San Juan plazan, sorginen bilkura eta dantza erakustaldiarekin. Dantzariak **Buruntzantz**an perkusiojoleen erritmorik dantzan ibiliko dira San Juan plazatik Plazido Muxika

plazaraino. Hantxe, sorgin dantza eta Akelarrea antzetzuko dituzte. Gaueko 22:30ean sua piztuko dute, **Txanbolin** txistularien bandaren emanaldia hastearekin batera.

## RALLYAREN BIGARREN EDIZIOA URNIETAN



Xoxoka Motor Kirol Klubak bigarren aldiz Urnietako rallya antolatu zuen, ibilgailu klasiko askoren parte hartzearekin.

### SAILKAPENA

2017-6-16, Urnieta:

1. Lorenzo-Ayucar  
Opel Kadett GSI
2. Sergnese-Soto  
Peugeot 205 GT
3. Martinez-Martinez  
Porsche 911 T Targa
4. De la Torre-De la Torre  
Renault 5
5. Moneo-Olaya  
Peugeot 309 GTI.
6. Aldaraborda-Hurtado  
Ford Scort.

Bestalde, saskiaren zozketa antolatu zuten eta irabazlea 420. zenbakia izan da. Zortedunak antolatzaileekin jarri behar du harremanetan.



Martinezdarren Porsche 911 T Targa ibilgailua hirugarren sailkatu zen.



Joseba, Ane eta Miren Zatarain Matra Murena ibilgailuarekin aritu ziren.



Citoren Mehari, Pedro Mari Corrochanok eta Asier Urrestarazuk gidaturikoa.

## EGAPE DANTZA TALDEAREN HAMARGARREN URTEURRENEKO JAIALDIA

# Magikoa, gogoangarria, luzaroan ahaztuko ez dena

Ikusleek eta bereziki Egape dantza taldea osatzen duten kideek ez dute berehalakoan ahaztuko Plazido Muxika plazako oholtza gainetik eskaini zuten “Plazara plazerez” ikuskizuna.

Plaza eta plazera hitzei hirugarren bat erantsi beharko litzaioke: Pasioa. Banaka eta talde modura urtez urte hobetzeko beharrezkoa den pasio hori ondo baino hobeto islatu zen ekainaren 17ko emanaldian.

Profesionalen moduko azpiegitura teknikoarekin eta mila ikusleren aurrean **Egape dantza taldeak** talde bati ez baizik eta konpainia bati dagokion mailako ikuskizuna eskaini zuen. Zorrotz, zuzen eta sendo agertu ziren ikusleen aurrean, den-denak bereganatzeraino. Euren buruari ipinitako erronka ez zen batere makala, arriskua hor zegoen, eta halere bikain irten ziren ataka estu horretatik. Jaialdiaren hasieran egin zuten adierazpenean atzera begira jarri ziren, euren xedea agertzearekin batera: “Egape dantza elkartearen jarduna 2007an abiatu zen. Lehen hamarkada osatu dugula ospatzeko ikuskizun berezia prestatu dugu. Aire zabalera atera nahi izan dugu ahalik eta urnietar gehienengana iritsi ahal izateko”.



‘Oi Ama’ dantza saioa. Argazki guztiak Joserra Elustondorenak dira.

Edu Muruamendiaren zuzendaritzapean 47 dantzari igo ziren taula gainera, denera hamazortzi koreografia ezberdin eskaintzeko. Ez ziren ikuskizunaren partaide bakarrak izan. Alboan izan zituzten erritmoa eta konpasa ipiniz **Anabas** musika taldea eta **Ugarte anaia** txalapartariak.

Dantzariak **“Sagarra jo”** dantzatzuz gau majikoa agurtu zuten. Lehenago, Muruamendiaren omenaldia egin zioten. Taldea zorretan sentitzen da zuzendariarekin: “Mila esker 10 urte hauetan bidelagun izan dugun artista, koreografo, eta batez ere lagun bihurtu den Edu Muruamendiari. Esker mila urte hauetan guztietan zure indarra, gogo, bihotza eta artea eskaini diozulako Egape dantza taldeari”.



‘Xingola Mingola’ dantza saioa.



‘EDT 10 urte’ kanta Antton Jauregik egokitu du. Naroa Agirrek idatzitakoa, Xabi Ubillosek abestu du. Argazkian Ugarte anaia eta Anabas musika taldeko kideak.



‘Fandangomak’ dantza saioa, joan zen larunbateko emanaldian.



‘Fandangoarekin jolasean’ saioa.



Edu Muruamendiaren taldekideen eskertza eta omenaldia jaso zuen.

## HOGEIGARREN EDIZIOAREN SARI BANAKETA EKITALDIA

# Erreportari Gaztea Sariak banatu zituzten Gazte Lokalean

DBH eta Batxiler mailako lehiaketa hogeigarren ediziora iritsi da, eta ohikoan bezala dozenaka lan aurkeztu dira lehiaketara. Aurten goan osasunari, elikadurari edota genero berdintasunari loturiko

hainbat lan aurkeztu dituzte lehiaketara. Lan guztien artean, Jone Larrañaga, Eneko Telleria eta Joni Ubeda kazetari eta epaimahaikideek lan onenak aukeratu zituzten.

Hirurogeita lau lan aurkeztu dira guztira eta **Aita Larramendi ikastola, La Salle-Berrozpe ikastetxea** eta **Leizaran** institutuko ikasleak saritu dira. Lan horiek guztiak bere horretan irakurgai daude 'erreportarigazteasaria.wordpress.com' blogean. Hauexek aurtengo lan irabazleak eta egileen izenak:

- 1. Irune Gonzalo eta Ainhoa Manterola:** "Isildutakoak errepikatzen". Aita Larramendi ikastolako lanik onenaren saria ere jaso du bikoteak. Sexuari eta gizarteari loturiko tabuei buruzko erreportaje sakona.
- 2. Lili Zubeldia eta Ibane Otegi:** "Otegitarrak: bost belaunaldi pilota astintzen". Izenburuak dioen bezala, Otegi familiaren historia biltzen duen erreportaje landua.



**LEHEN SARIA:**  
Ainhoa Manterola eta Irune Gonzalo

- 3. Aritz Igerategi eta June Montejo:** "Liburu bilduma hutsetik sorkuntza aretoa". Donostiako Tabakalera egoitza duen liburutegi berritzaileari buruzko erreportaje interesgarria.

- 4. Leire Bueno eta Irune Elizondo,** La Salle-Berrozpe ikastetxeko lanik onenaren saria. "Organismoarentzat etenaldia". Loaren etenaldiari buruzko erreportaje hezigarria.

- 5. Riad Mouaffaq, David Alvarez eta Irene Sansamendi.** Leizaran Institutuko lanik onenaren saria, "Modeloak modan?". Pasarelaren bestaldea erakusten duen erreportaje atsegina.

Ekitaldiaren aurkezle lanetan Xabi Paya bertsolaria aritu zen. Aurreiritzei buruzko ariketa interesgarria landu zuen ikusleekin batera.



**BIGARREN SARIA:**  
Ibane Otegi eta Lili Zubeldia



**HIRUGARREN SARIA:**  
June Montejo eta Aritz Igerategi



**LEIZARANGO ONENA:**  
Riad Mouaffaq, David Alvarez eta Irene Sansamendi



**LA SALLE BERROZPEKO ONENA:**  
Irune Elizondo eta Leire Bueno



# Andoain eta andoaindarrak jaiez eta herriaz gozatzeko prest

San Juan jaien egitarauaren prestaketan aritu dira andoaindarrak azken hilabeteetan, eta hainbat berrikuntzekin datozen San Juan jaiak aurkeztu zituzten.

Agerraldi jendetsuan zehar, Esti Mujika kultura zinegotziak jai batzordean parte hartu duten elkarte eta kide guztiei eskerrak eman ostean, egitarauak egunegun dakartzan hainbat proposamen berritzaile azaldu zituen. "Aurten lehenengoz, ekainaren 23an, arratsaldeko 16:30ean haur eta gurasoek festetako murala margotuko dute, Goikoplazan Sormen tailerreko begiraleez lagunduta. Ordu erdi geroago, adineko pertsonari begira batez ere, San Juanetako I. Toka Txapelketa burutuko da Goi-

koplazan bertan". Hurrengo egunean, ekainaren 24an egingo den txuleta jana aipatu zuen segidan. "Aurten, erronka proposatu digute jai batzordekideek: sonbrilla zatarrena eramaten duen koardilarentzat saria egongo baita. Ea ba, nork eramaten duen saria! Bazkariaren ostean, Sakatu elektrotzarangak herriko kaleak alaituko ditu, eta ondoren, plaza dantzak izango ditugu Goikoplazan Ortzadar taldeak gidatuta. Egun honetan, estreinekoz, Andoaindarrak elkarteko danborrada arituko da danborrak astinduz herriko kaleetan".

Ekainaren 25a ere ekimenez josita datorrela baieztatu zuen: "Aurten lehenengoz Patata tortilla dastaketa burutu-

ko da eguadi partean. Sari banaketa egin ostean, ardo eta tortilla pintxoekin dastaketa burutuko da eguerdi partean. Arratsaldean, berriz, 3x3 saskibaloia txapelketa ospatuko da Nafarroa plazan eta Batukada Feminista ere bertatik abiatuko da arratsaldeko 19:15etatik aurrera".

Jaietako gauak alaitzen ahalegin berezia egin dela esan zuen. Hain zuzen ere, Nafarroa plazako kontzertuak aipatu zituen bereziki. Horrela ostiralean Reincidentes eta Gozategi taldeak oholtzara igoko dira Nafarroa plazan eta Gatibu eta Laket larunbatean. Bestalde, egun berean Goikoplazan Trio Media-nochek emanaldia eskainiko du Hegoa-

merikako doinuak (boleroak, baltsak, rantxerak...) berrituz.

## ELKARREN ERRESPECTURAKO DEIA

Azkenik, Esti Mujika kultura zinegotziak haur, gazte eta helduak festara animatzeaz gain, elkarren arteko errespetuan oinarritutako egunak igarotzeko gonbidapena luzatu zuen. "Ez jaietan eta ez inon ez dugu jarrera lesbofobo, homofobo eta transfoborik onartuko. Pertsona guztiak norberaren jokaerak askatasun osoz eta berdintasunean garatzera gonbidatzen ditugu. Eta gogoratu nahi genuke eraso sexistarik ez egiteko Erantzun eta Esku Hartzeko Protokoloa martxan dugula".



# Murala margotuko dute jaien hasieran

**AURTENGO SAN JUAN JAIK MURALAREN MARGOKETAREKIN ABIATUKO DIRA, TALDEAN EGINDAKO JARDUERAN.**



Muralaren margoketan parte hartuko duten hainbat kide, asteleheneko taldeko argazkian.

Goikoplazara haur eta gurasoak deitu dituzte ostiral honetan, taldean egitekoa den jardueran parte hartzeko.

16:30etik aurrera, festetako murala margotuko dute. Zaletasuna duten haur eta gurasoentzat, aukera aparta.

## Erakusketa Urigainen

**IKASLEEN ARTELANAK ETA KARTEL LEHIAKETARA AURKEZTUTAKO LANAK IKUSGAI**



Kultura batzordeak antolatutako ikastaroetako ikasleek ikasturtean zehar egindako lanak. Pintura, egur taila eta eskulanei loturiko artelanak izango dira.

Bide batez, aurtengo San Juan jaiak iragartzeko kartel lehiaketara aurkeztutako lanak ere ikusgai izango dira.

**ORDUTEGIA:**

**Ekainak 22 eta 26:**

18:00-20:00

**Ekainak 24 eta 25:**

10:30-13:30 / 18:00-20:30.

**KARTEL IRABAZLEA**

Juanan Lazkano izan da aurtengo jaietako kartel lehiaketaren irabazlea. Martxoaren 8koa ere berak irabazi zuen.

Juanan Lazkano izan da aurtengo egilea.

# Ekainaren 23tik 26ra

**HITZORDU UGARI ASTELEHENERA BITARTE LUZATUKO DIREN SAN JUAN JAIETAN.**



San Juan sua prestatzeko lanak goizean goizetik hasiko dira, ostiral honetan.

### Ekainak 23, ostirala

**16:30** Haur eta gurasoek festetako murala margotuko dute Goikoplazan.

**17:00** Sanjuanetako I. Toka lehiaketa nagusia Goikoplazan. Izen-emaitea 16:30etik aurrera.

**17:00** Ping-pong txapelketa Gazte Lokalean.

**18:15** Sanjuanetako kartel lehiaketa, sari banaketa Urigainen.

**18:30** Buruhandiak eta erraldoiak, trikitilariak, txistulariak eta Gora Kalletxiki txarangaren kalejirak herriko toki desberdinetatik Goikoplaza aldera.

**19:00** Pregoia Alberto Agirre abesbatza-aren eskutik.

**19:30** Alberto Agirre abesbatza eta Udal musika eskolako abesbatzen kontzertua San Martin elizan.

**19:30** Koadrillen arteko pintxo dastaketa Gazte Lokalean.

**20:00** On Pedro Aizpuruaren Salbe Gorrena San Martin elizan.

**20:00** Pilota partidak Arraten:  
-Iturzaeta Memorialaren finala.  
-Palista profesionalen jaialdia.

**20:15** Alkatearen eta udalbatza-ren Soka-dantza Goikoplazan.

**22:00** Olagain txistulari bandaren kalejira San Juan zortzikoa joz. Ibilbidea: Etxeberrieta, Zumea, Kale Nagusia, Goikoplaza.

**22:30** San Juan sua suziri, txalaparta eta kanpai-errepikarekin.

**22:45** Agustin Leitza elkartearen danborrada udaletxe azpiko taula gainean.

**23:30-03:00** Gozategi eta Reincidentes tadeak zuzenean, Nafarroa plazan.

### Ekainak 24, larunbata

**09:00-15:00** Colombaire usakume tiroketa Pagamendin.

**11:00-13:00** Xakea Goikoplazan.

**11:00** Umeen eta gazteen eskuzko finalak Arraten.

**11:00** Meza nagusia San Martin parro- kian, Alberto Agirre abesbatzak kantatua.

**12:00** Axeri-dantza Goikoplazan.

**13:00** Kantu kalejira, txalapartaz lagun- duta, Goikoplazan hasita.

**14:30** Txuleta jatea Goikoplazan. Ondoren Sakatu elektrotxarangaren irteera.

**18:00** Bizikleta festa Goikoplazan. Ba- koitzak bere bizikleta eta kaskoa ekarriko ditu.

**18:00** Herri kirolak Goikoplazan. Aiz- koran, trontzan, korrika Xabier Zaldúa-Donato Larretxea eta Aratz Mugerza-Jon Rekondo. Aizkora, trontza: Leire Astiazar- ran eta Itxaso Onsalo. Iparralde- ko jokoak: Jose Martin Bustinza Tubi Euskadiko txapelduna (las- toa bota, lastoa altxa eta ingude altxatzea).

**18:45** Andoaindarra elkarteko danbo- rradaren irteera Goikoplazatik.

**19:00** Plaza dantzak Nafarroa plazan.

**19:15** Bikoteen kros mistoa. Irteera Goikoplazan hasi eta helmuga Pio Barajo kalean. 5 kilometrota- ko ibilbidea.



Udalarekin batera, askotxo dira antolaketan murgiltzen diren herritarrek eta elkarteak.

**19:30** Bertso jaialdia Goikoplazan: Uxue Alberdi, Amets Arzallus, Maddalen Arzallus, Unai Iturriaga, Xebastian Lizaso, Aitor Mendiluze. Gai-jartzailea: Ion Beloki.  
**22:30** Zezen-suzkoa Goikoplazan.  
**22:45** Tio Teronen Semeak dantza ikuskizuna Goikoplazan.  
**23:30** Trio Medianoche taldea: Boleroak, balsak eta latinoamerikako erritmoak.  
**23:15-03:00** Gatibu eta Laket Nafarroa plazan.

#### Ekainak 25, igandea

**10:30-14:00** Artisautza azoka Goikoplazan.  
**11:00-11:30** Patata tortilla lehiaketa Goikoplazan.  
**11:00** Mugaz taldea, Konbo gaztea eta Azelain ballet elkarte Goikoplazan.  
**12:15** Patata tortilla lehiaketaren sari banaketa Goikoplazan.  
**12:30** Ardo dastaketa eta patata tortilla pintxoak Goikoplazan.  
**12:30** Olagain txistulari taldearen eta gonbidatuen kontzertua Goikoplazan.  
**16:00** Gipuzkoako Txirrindularitza Itzuliaren irteera Goikoplazatik.  
**16:30** Pilota partidak Arraten: Palako gazteen finalak, zestako gazteen finalak eta zestako nagusien finalak.  
**16:30-20:00** 3x3 Saskibaloitza torneo Nafarroa plazan. Izen-ematea: Ganbara tabernan ekainaren 25ean.  
**17:00-20:30** Artisautza feria Goikoplazan.  
**17:30** Triana taldea Goikoplazan.  
**18:15** Gipuzkoako Txirrindularitza Itzuliaren helmuga Plazaola kalean.

**18:30** Gora Kaletxiki txaranga, Juanita Alkain plazatik abiatuta.  
**18:30** Soinuak musika eskolako ikasleak Goikoplazan.  
**19:00** Tomaxen abenturak: "Festara" haur antzerkia Erretore-etxeko belardian.  
**19:15** Batukada feminista, Nafarroa plazatik Goikoplazara.  
**20:00** Kontzejupe pilota partidak Goikoplazan.  
**20:00** Udal musika eskolako banda Goikoplazan.  
**22:30** Zezen-suzkoa Goikoplazan.  
**22:45** DJ Bull eta disko festa Nafarroa plazan.  
**22:45** Bakartxo & Joseba dantza eskolaren erakustaldia Goikoplazan: tangoa, salsa, funky, sabel dantza eta melburne shuffle.

#### Ekainak 26, astelehena

**11:30-13:30** Haur parkea Goikoplazan.  
**13:30** Agintarien harrera laurogei urteko aiton-amonei udaletxe aurrean.  
**14:00** Laurogei urteko aiton-amonen bazkaria Basteron.  
**17:00-19:30** Haur parkea Goikoplazan.  
**17:00-19:00** Egurrezko joko erraldoiak Makaldegian.  
**18:00** Haur danborrada ikastetxeetako ikasleen parte hartzearekin, Zumea plazatik Goikoplazara.  
**19:30** Dantza saio erraldoia Goikoplazan:  
 -Funky emanaldia La Salleko eta Klaap eskolako emanaldia.  
 -Zumbaton: Zuena elkarteko emakumeak eta Pame-zumbako ikasleak.  
**22:30** Cavaltheos Foc pirotekniako kalejira Juanita Alkain plazatik Goikoplazara.

# Gorputza eta burua estali behar dira

**JAIEN AMAIERAKO CORREFOC IKUSKIZUNEAN MURGILDU NAHI DUENAK SEGURTASUN NEURRIAK HARTU BEHARKO DITU.**



Argazkian ikusten denez, ezinbestekoa da burua eta gorputza estalita eramatea.

Pirotekniako ikuskizun ibiltaria izatean, suziritatik gertu ibili nahi duenari segurtasun neurriak hartzeko eskaera luzatu zaio. Jeans edo bakero arropa eramatea aholkatzen da, eta baita burua estalita eramatea ere. Saltoki eta

tabernen kasuan, neurri ezberdinak hartu behar dituzte. Batetik, taldoa biltzea eta, bestetik, ate eta erakusleihoe-tako kristalak paperarekin edota kartoiarekin tapatzea. Ekitaldi horrekin emango zaie amaiera aurtengo jaiak.

# Tio Teronen Semeak

**TRADIZIOA ETA BERRIKUNTZA UZTARTZEN MAISU BILAKATU DIRA. ARRAKASTA HANDIAREKIN, GAINERA.**



Tio Teronen Semeak ikuskizun betean Amasa-Villabonako Oinkari dantza taldearen urteurrenean.

Dantzari gazteak Euskal Herri osoan ezagun egiten ari dira, dantza estilo tradizionala eta berritzailea uztartuz.

Aho bete hortz uzten dituzte ikusleak eskaintzen dituzten koreografia berritzaileekin.

# Andoaindarraren elkaratearen estreinaldia

**ANDOAINDARRA ELKARTEAK LEHENBIZIKO ALDIZ KALERATUKO DU DANBORRADA SAN JUAN JAJETAN. BERTAKO LEHENDAKARI IVAN GONZALEZ IZAN DA EKIMENAREN BULTZATZAILEA.**

**Zer dela eta sortu zaizue danborradaren ideia?**

**I.G.:** Zuzendaritzako kideok garbi daukagu elkarateak Andoaingo herriaren kultur bizitzan ekarpenak egin ditzakeela; badagoela giza potentziala horretarako, baina nahiko utzita dagoela alderdi hori. Elkaratea diru irabazirik gabeko kultur elkaratea izateko filosofiarekin jaio zen, eta alde horretatik, lagunak eta familiak mahai baten inguruan elkartzeko lekua eskaintzeaz gain, ezin da ahaztu kultur eragile izateko bere papera. Besteak beste, danborrada izan daiteke egokia alderdi hori indartzeko. Ni kanpotik etorritakoa naiz, baina ohartuta nago danborrada nahiko ekitaldi herrikoia dela, Gipuzkoan eta Andoainin sustrai handiak dituena. Elkarateak berak badauka ereserki propioa, Joxe Mari Oiarzabalek sortutakoa danborradetan espreski jotzeko.

**Zer moduzko erantzuna izan du proposamenak elkaratean?**

**I.G.:** Bikaina. Egia da hasieran proposamena bazkideen artean zabaldu eta izena emateko zerrenda jarri zenean, ez zela oso harrera beroa sumatu. Ekimen berriek sortu ohi dituzten aurreneko eszeptizismo eta zalantzak sortu ziren, nik uste.

Agustin Leitza elkaratearen danborradan integratuta jotzea izan zen gure lehenbiziko asmoa, jende falta izango genuelakoan. Nolanahi ere, ahoz ahozko kanpainari ekin genion, eta denbora aurrera joan ahala, jendea ideia barneratzen hasi zen. Era horretan, Aste Santuaren itzulera, jende askok eman



Ivan Gonzalezek Martxel Pregorekin batera zuzenduko du Andoaindarraren elkaratearen danborrada. Estreinaldian izango da elkaratearentzat.

zuen izena. Kontua da 60 bat pertsona bilduko garela azkenean. Horietatik batzuk bazkideak dira, eta gainerakoak bazkideen ingurukoak, familiakoak, lagunak... Egia esan, elkaratea soilik gizonen artean osatu arren emakume asko animatu da danborra jotzera.

**Zer moduz entseguetan?**

**I.G.:** Oso gustura. Andoaingo beste danborradetan jo izan dutenak eta hasiberriak nahastu gara, baina denak ere ederki ari gara moldatzen entseguz entsegu. Ilusio handiarekin etortzen da jendea. Seguru nago aurtengoa txukun irteten bada eta jendeak gozatzen badu,

erraztuta edukiko duela etorkizuneko bidea. Nik, behintzat, konpromisoa hartzen dut antolaketan jarraitzeko.

**Zein izango da zuen errepertorioa?**

**I.G.:** Elkaratearen ereserkia, Andoain, Larramendi, Diana, Tatiago eta Gaubilera.

**Eta zein ibilbidea egingo duzue?**

**I.G.:** Galardi atzealdeko egoitzan 18:45etan bilduko gara eta hor ereserkia jo ostean Goikoplazara abiatuko gara. Bertan ekitaldi ugari izango denez (krosa, bertsolariak...) zuzenean Bastero aldera joko dugu. Juanita Alkain pla-

zan eta Bekoplazan ere saioak egiteko asmoa badugu, bide batez San Juan jaiegi giroa Goikoplazako gunetik kanpora eramanez. Doktor Huizi eta Agustin Leitza kaleetan barrena Goikoplazara 20:30-21:00ak aldera iritsiko gara. Plazako oholztan jotzeko asmoa daukagu. Horkoak eginda, elkartera joango gara afaltzera.

Gora Kaletxiki txarangaren laguntza izango dugu, entseguetan bezala. Banderak, sardeskak eta aiztoak elkartero bazkide beteranok eramango dituzte; Martxel Pregok upelak zuzenduko ditu, eta neuk danborrak.

**Zu ez zarela hemengoa esan duzu lehen...**

**I.G.:** Madrildarra naiz berez, baina sei urte daramat Andoain bizitzen. Bikotea dut andoaindarraren, bere aita elkartero fundatzaileetako bat izan zen. Bikotea ezagutzearekin batera hasi nintzen ezagutzen euskal elkarteen errealitatea. Txundigarria iruditu zitzaidan zein ondo egoten diren antolatuta eta bertan bazkideek erakusten duten errespetua. Madrilgo adiskideei kosta egiten zaie sinestea nik kontatzen dieran guztia. Gustura asko eramango nuke Madrilera hemengo elkarteen filosofia!

Gauza da bazkide izateko itxaron-zerrendan jarri nintzela agudo, eta orain sei urte eduki nuela sartzeko aukera. Aurreneko egunean bertan, Andoaingo elkarteen aparteko ekitaldi batean danborra jo behar zela-eta boluntarioak eskatu zituzten. Gitarra jo izan dut musika taldeetan, eta gustura hartu nuen parte musika oinarri duen ekitaldi herriko horretan.

## Agustin Leitza 23an, Andoaindarraren 24an



Agustin Leitza elkarateko saioa eskainiko du ekainaren 23an, suaren aurrean.



San Juan egunean, ekainaren 24an, Andoaindarraren elkarateko danborradaren txanda iritsiko da.



Andoingo Udalak egoera ekonomikoa ona dela adierazi zuen

## Egoera ekonomiko orekatua

**Andoingo Udalak** joan zen astean bilera irekia deitu zuen Bastero kulturgunean, egoera ekonomikoaren berri emateko. **Ana Carrere** alkateak jardun zuen aurkezle lanetan. Datuak zehaztasunez azaldu ostean, balorazio argigarria egin zuen: "Gaur gaurkoz egongo dira askoz egoera hobean dauden udalerriak. Andoain, behintzat, zulo zulotik atera da eta Gipuzkoaren batz bestekora gerturatzeko ari da. Zuhurtziaz bada ere, egoera normalizatu gaudela esan genezake. Azken urteotan hartutako neurriekin eboluzio ona izan da, eta horrek eragin zuzena izan du aldagai ekonomikoan balio positiboetan. Duela urte batzuk dirurik ez zegoela eta ezer ez eskatzeko adierazten ari ginen ia-ia. Udaletxeko atak ireki eta gastuak ordaintzeko nahikoa lan genuelako. Dagoeneko ez da hori diskurtsoa, eta hori ona da. Herritarren artean ere kezka hori apaltzen doala ikusten ari gara. Guk gure aldetik egoera txarrean geundenean kontuen berri emateko erantzukizuna hartu genuen. 2017an, egoera ekonomikoa hobea bada ere, erantzukizun berari heldu nahi digu".


### DATU EKONOMIKOAK

Ana Carrere "egoera normalizatu duen udalerriari dagozkion" kontuak azaldu zituen hizaldiaren lehen zatian.

Datu horiek herritar guztien eskura daude Udalgida Gipuzkoa.eus atariko atalean. Datuak publikoak eta ofizialak dira.

23 milioi euroko aurrekontua duen udalerrria izanik, aurtengo inbertsioa 2,4 milioi eurokoa izango dela aurreikusi dute.

2016ko aurrezki garbia 1,7 milioi eurokoa izan zen eta alkateak datu horri erreparatzea merezi zuela adierazi zuen. Izan ere, datu hori udalerrri ba-



Ana Carrere alkateak aldaga

ten autofinantzaketaren adierazle nagusia da. 2009-2011 urteetan aurrezki garbia negatiboa zen, eta Udala maileguei esker finantzatu behar izan zuen. 2012-2016 zikloan egoera hori irauli eta autofinantzaketak handituz joan da.

Horri esker funtzionamendu gastuetarako tentsioa nabarmen jaitsi da. 2009an diru-sarreraren %97a gastu korrontera bideratzen bazen, alegia ia jasotako diru guztia, 2015ean datu hori nabarmen jaitsi da. Eta orain egoera hobexegoa denean, 2012tik langileei zor zitzaizen aparteko ordainsaria ordaindu zaie eta baita 2015 urtetik ordaindu gabe zeuden beste zenbait faktura ere.

Diru gerakina edo udalgintzan "remanente" bezala ezaguna dena balio positiboetan dago azken hiru urteetan. 2016ko abenduaren 31n, esaterako, udaletxeko kontuetan 1,47 milioi euro zeuden.

Egoera ekonomiko on horretara iristeko neurri asko hartu behar izan da. Eta Udalak gastu korrontean ematen ari direnak nabarmendu nahi izan zituen.

**Argindarra:** LED sistemari esker, maiatzeko faktura urte batetik bestera erdira jaitsi da. 2016ko maiatzean 23.300 euro gastatu ziren argiterian; 2017an 12.700 euro. Hilabete horretan bakarrik 10.600 euro aurreztu ziren. Urte osoko au-

rrezkia 127.000 eurokoa izango dela aurreikusi dute.

**Hondakinen bilketa:** Errefusaren bilketa doitzarekin eta bosgarren edukiontzia txer-taketarekin otsaileko faktura, urte batetik bestera, 16.300 eurotan murriztu da. 2016ko otsailean 111.000 euro gastatu zen hondakinen tratamenduan; 2017an 95.500 euro. Hilabete horretan 16.300 euro aurreztu dituzte, eta urte osoko aurrezkiak 196.600 eurokoa izatea espero dute.

**Ura:** Inbertsio handia egiten ari da Udala, urte anitzekoa. Horri esker metro kubikoen kontsumoa nabarmen jaitsi da eta, ondorioz, faktura ere nabarmen jaitsi da. 2016ko eta 2017ko lehen hiru hilabeteetako fakturak alderatuta, 57.600 euroko aurrezkiak izan da.

### INBERTSIOAK

Udalak bi milioi eurotik gora inbertituko ditu jarduera ezberdinetan: Kale argiteria, hondakinak, ur azpiegitua sare...

Haur parkea berritzea, hilerria birmoldatzea, Makaldegiko WCak, artxibo berriaren egokitzapena... Egitasmo horiek ere hizpide izan zituen alkateak.

### GALDE-ERREGUAK

Ur zikinak edota etorkizunerako inbertsio plana izan ziren galde-erreguen atalean sortutako galderak.

## Rockzaleen hitzordua Nafarroa plazan



Ezinbesteko hitzordu bilakatu da Andoingo Rock Jaialdia musikazaleentzat.

Musika proposamen ezberdinak entzuteko eta ezagutzeko aukera paregabea eskaintzen du Andoingo Rock Jaialdiak. Aurtengoan sei talde igo ziren oholtzara: Belarmiñak, Peralta, Penny Ikinger, The Limiñanas, Belvis Frond eta Ebbot Lund-

berg. Jende ugari bildu zen Nafarroa Plazan, bertakoak ez ezik kanpotik ere hurbildutako musika zaleak denak. Egundoko giroa egin zuen kontzertuak iraun zuen arratsalde eta gau osoan zehar, aire zabalean musikarekin gozatzeko modukoa.



Ebbot Lundberg kantari suediarra.



Penny Ikinger kantari australiarra.



The Bevis Frond Londoneko laukotea Andoingo Rock jaialdian.

## JON LIZARRALDE ETA SUSANA ARREGI GOGOAN



**Jon Lizarralde** andoaindarra eta **Susana Arregi** oñatiarra gogoan eduki zituzten joan zen igandean, Irunberriko arri-lan egin zen ekitaldian. 1990ko ekainaren 25ean biak hilik agertu ziren Guardia zibilekin tiroketa izan ostean. Gertakizun haietan ere Jose Luis Hervas guardia zibila hil zen, eta German Rubenachek zauriak jasan zituen. Etxekoek eta lagunek bi hildakoak gogoan hartu eta oraindik ilun jarraitzen duten gertakizunak argitzea eskatu zuten.



## KIROL ALBISTEAK

### Lizeagaren berragerpena Tolosako mendi lasterketan



Alonso eta Lizeaga helmugan.

Lesioek lasterketa girotik urrundu zuten. Urnietarra, konfiantza hartu nahirik, proba motzak egiten hasi da. Joan zen igandean Asier Alonso gaztearekin batera helmugara zuen, Tolosan. Igande honetan Zumaiaiko Flysch trail mendi lasterketaren irteeran izango da. Antolatzaileek, gainera, omenaldia egingo diote lasterketaren hasieran.

#### TOLOSALDEKO3 TONTORRAK-T3T 17.0618. Distantzia: 42,7 KM.

1	4:18:57	Ismail Razga
2	4:22:50	Carlos Garcia
3	4:44:27	Goar Lopetegi
4	4:44:55	Mikel Etxeberria
5	4:45:23	Xabi Lete

#### Urnieta:

6	4:52:14	Igor Amantegui
35	5:34:36	Borja Granada
56	5:54:11	Asier Iparragirre
77	6:06:34	Tomax Pellejero
83	6:13:02	Imanol Garcia
132	7:12:08	Mikel Etxezarreta

#### Andoain:

36	5:34:54	Ivan Piñon
145	7:21:43	Urko Otaño
159	7:34:48	Maikel Fernandez
167	8:00:32	Jagoba Arostegi

#### TOLOSALDEKO2 TONTORRAK-T2T 17.0618. Distantzia: 24,5 KM.

1	2:11:32	Asier Alonso
2	2:11:32	Jokin Lizeaga
3	2:14:37	Ion Sola
4	2:16:11	Jon Alberdi
5	2:18:32	Jon Aizpuru

#### Andoain:

18	2:37:07	Oier Escudero
63	3:03:49	Gorka De Mateo
179	4:06:06	Iñaki Barrante

#### Urnieta:

90	3:14:49	Mikel Garmendia
91	3:15:23	Julen Larrarte
105	3:23:13	Jon Morandeira
155	3:47:43	Jon Iraola
176	4:03:18	Ainara De Miguel
177	4:03:18	Txus Gonzalez
197	4:22:43	M.Carmen Martin
198	4:22:43	Maite Begiristain
199	4:22:43	Almu Salas

### Igerilekuan trebe



Irunen aritu ziren taldekideak.

Adinarteko txapelketan lehia ziren alebinak Irungo igerilekuan. Bertan **Buruntzaldea IKT** taldeko zortzi igerilari, euren onena ematen aritu ziren: **Ane Artola, Aintzane Sarobe, Nerea Santos, Nora Imaz, Pello Ibarгойen, Unai G. Somovilla, Eneko Elizasu** eta **Iker Felipe**. Dominak, marka berriak eta Espainiako txapelketarako sailkapen bat lortu zituzten.

### Denboraldiko azkena Gaintzan



## Plazaolako Bide Berdea lasterketaren aurkezpena



Mikel Rodriguez maratoiko helmuga lehen postuan zeharkatzen, pozarren. Emakumezkoen maratoi erdian Uxune Tena nagusitu zen.

Irailaren 17an "Plazaolako Bide Berdearen" II. Maratoiaren eta XI. Maratoi Erdia edizioak burutuko dira, eta joan zen astean bi lasterketen aurkezpen ekialdia egin zuten Leitzan. Kirol proba horren sustatzaileak Plazaolako Partzuergo Turistikoa eta Andoaingo Udala dira, eta antolaketa Divesport enpresaren esku dago. Datoren irailaren 17an, igandearkin izango da. Maratoia Lekunberritik abiatuko da eta 42 kilometroren ostean Andoai-

nen amaituko da. Erdi Maratoia, aldiz, Leitzatik irten eta 26 kilometro egin ostean Andoaingo Goikoplazan amaituko da. Lasterketa laua da, maldan behera doana eta Beterri-Buruntzako biztanleek ondotoxo dakitenez, ibilbide ederretik igaroko da. Antolatzaileek asfaltoko zapatilak eramateko gomendioa luzatu dute. Seguratasun neurri guztiak hartuta daude, kirolarien osasunari begira eta 5 kilometroro jatekoa eta edatekoa izango da. Nola

ez, tunelak tarteko, lasterkariak frontala eramateko eskaera luzatu diete.

#### ORAIN IZENA EMANEZ GERO, MERKEAGO

Ekainaren 30ean bukatzen da bi probatan izena emateko lehenengo epea. Bigarrena, abuztuan. Orain izena ematen duenak merkeago lortuko du txartela.

Informazio osoa:  
[www.maratonviasverdes.com](http://www.maratonviasverdes.com)



Primitivo Sanchez Nafarroako Kirolaren Institutuko Kirol zuzendariordea, Natalia Azcona Lekunberriko alkatea eta Plazaolako Partzuergo Turistikoko lehendakaria, Eneko Andueza Leitzako Kiroletako zinegotzia, Jon Zulueta Andoaingo Enplegu eta Gazteriako zinegotzi delegatua, Miren Juantorena Leitzako Anikote Kirol Zerbitzuko arduraduna, Jon Ander Unanua Kirolmankeko gerentea, Ainhoa Amundarain Donostialdea Turismo koordinatzailea eta Gustavo Ortiz de Barrón Plazaolako Partzuergo Turistikoko Gerentea izan ziren aurkezpen ekitaldian.



## KIROL ALBISTEAK

# Keler nagusi, Txalakaren aurkako final estuan



Keler eta Txalaka taldeko kideek ekarrekin atera zuten taldeko argazkia, sari banaketa ekitaldiaren ostean.

Ikasturtean zehar Andoaingo Areto futbol txapelketan hamalau talde aritu dira lehian, A eta B taldeetan banatuta. Final handia joan zen igande eguerdian jokatu zen, eta partida estuan Keler taldea 2-1 nagusitu zitzaion Txalaka jateixari. Maila bertsuan aritu ziren bi taldeak, eta Keler taldekoek Txalakak defentsan egindako akatsa ondo baino hobeto baliatu zuten bigarren gola sartzeko. Azken segunduetan tentsioa nabaritu zen, irabazleek partida ahalik eta azkarren amaitzea nahi zutelako. Keler taldeko kideak beterranoak dira txapelketa honetan, Txalakak ordea etorkizun oparoa dauka.

Academia G.F. izan zen B taldeko txapelduna, finalean Lanbroa taldea garaituz.

Finalaren argazkiak eta jokaldi onenen bideoa ikusgai dago aiurri.eus webgunean.



Keler taldea, txapeldunen koparekin.



Christian, finaleko jokalaririk onena.



Irazusta, finaleko atezainik onena.



Azpirotz, txapelketako goleatzailea.

## Urnietako kiroldegia berritzeko egitasmoa

Udalak aditzera eman duenez, Sabai Arkitektoak S.L. izan da Urnietako kiroldegiaeren erreformaren proiektua idazteko lehiaketako irabazi duen en-

presa. Ostegun honetan urnietarrek lehiaketa irabazi duen proposamena gertutik ezagutu ahal izango dute. Hitzordua ostegun honetan izango da,

arratsaldeko 19:00etatik aurrera Lekaion. Udalak herritarrek zein herriko kirol elkarteak animatu nahi ditu aurkezpen ekitaldira.

## Juanjo Arregi Real Sociedad taldeko entrenatzailea



Juanjo Arregi urnietarra aurkezpen ekitaldian.

Pozez eta erantzukizunez hartu du urnietarrak emakumezkoen lehen taldea entrenatzeko ardura. Jakitun da emakumezkoen lehen maila oso lehiakorra dela eta egindako lehen adierazpenetan azken urteetan egindako bi-

dean sakontzea nahiko lukeela adierazi zuen. Euskadiko hautatzailea izan da azken urteetan eta dagoeneko hainbat jokalaria ezagutzen ditu. Besteak beste, Nahikari Garcia herrikidea eta taldeko goleatzaileetakoa.

## Espainiako txapeldun-orde



### SANTESTEBAN-IRIARTE 2 LOITEGI-GURUTZEALDE 1

Espainiako finala. Trinketea. 7-15, 15-9, 10-7

Partida bikaina, laur pilotarrena. Loitegi urnietarrari palmaresean falta zaion txapelketa bakarra da, Espainiakoa.

## Goi mailako partidak



### EKAINAK 23, OSTIRALA ANDOAIN. ARRATE

20:00etan hasita profesionalen partida eta pala motzeko afizionatuen arteko finala jokatuko da Arraten:

### 1. partida, profesionalak:

Fusto-Ibai  
Gaubeka-Imanol

### 2. partida, afizionatuak:

Garate-Ziskar  
Esnaola-Mendizabal

